

10. oinezko ibilbidea Erreketeak


10. ERREKETEEN BIDEA

ALTUEA MIN.:	200 m.
ALTUEA MAX.:	975 m.
DESNIBELA:	▼ 878 m. ▲ 513 m.
DISTANTZIA:	17,10 km.
DENBORA:	5-6 ordu.
ZAILTASUNA:	ertaina



10. ERREKETEEN BIDEA

➤ LIZARRUSTI PARKETXEA ~ LAREOKO URTEGIA ~ AGAUTZ GAINA ~
BEDAMABURU GAINA ~ IKARANDIETA GAINA ~ SAN MARTINGO PLAZA



Aparkalekua	Hesia/Langa	Iturria	Saroia	Pasabidea	Gailurra	Aterpetxea
Hasiera puntua	Bidegurutzea	Zubia	Leizea	Baserria	Atsedenlekua	Amaiera

TOPOGIDA

P. Aparkalekua. Ibilbide hau zeharkaldia denez, Lizarrustiko gaineko aparkalekuan utzi dezakegu autoa, eta ondoren autobusez igo, edo alderantziz: San Martingo plazan utzi autoa eta autobusez igo ibilbidea hasteko.

1. Hasiera-puntua. Lizarrusti Parketxearen eskuinaldean hasten da ibilbidea. Ezkerrean gelditzen dira jolastokia eta piknik gunea. Lareorako seinalea jarraituz bidean gora egingo dugu ibilbideari ekiteko.

2. Egur-hesia. Hau igaro eta GR 20.1aren arrastoak dituen pista zabala jarraituko dugu Lareora bidean.

3. Iturria. Akerretako harkaitzean den iturria igaro eta aurrera jarraituko dugu, berehala igaroz harkaitzean landuriko tunela ere.

4. Zubia. Zubipean doan Maizegi erreka igaro eta inguruko pago motzetan garai bateko txondor-gunea sumatuta egingo dugu aurrera.

5. Leizea. Bidetik kanpo eskuinetara gelditzen da Malkorburuko leizea. Bidean aurrera jarraituz hesia igaro eta parez pare ditugun GR arrastoei segika bidezidorra jarraituko dugu.

6. Lareoko sarrera. Hemen eskuinetara jarraituko ditugu GR-35aren arrastoak, Lareoko trikuharria ikusi ahal izateko urtegiari itzulia emanez.

7. Ezkerrera. Urtegiaren itzulia ematen jarraitzeko ezkerrera egin beharko dugu, GR-35aren arrastoen kontra.

8. Eskuinera. Eskuinera behera doan bidea hartuko dugu berehala GR 20.1aren arrasto zuri-gorriak topatuz. Bidean hainbat zuhaitz izango ditugu oztopo.

9. Ubegiko leizea. Bidean ezkerrera gelditzen da leizea, eta berehala eskuinera eginez jarraituko ditugu arrastoak. Pinudian hasiko gara, baina berehala ezkerrean utzi eta pagadian barneratuko gara.

10. Eskuinera. Eskuinera eginez dagoen bidezidorrarekin bat egingo dugu ibilbidea jarraitzeko.

11. Saroia. Artzaintza gunea adierazten duen saroia ikusi eta GR arrastoak jarraituz egingo dugu aurrera.

12. Txotxeta egitura tumularra. Bidean ezkerrera gelditzen da ustezko aztarna hau, oraindik indusi gabe dagoena. Alboan utziz arrastoei jarraituko diegu.

13. Saroia. Berrir GR arrastoak jarraituz eta artzainen bordak igaroz, beste saroi batera hurbilduko gara.

14. Erremedio trikuharria. Bidean ezkerrera gelditzen da, saroiaren ondoan. Trikuharri hau ere indusi gabe dago oraindik.

15. Saroia. Gora eginez, GR arrastoei segika zeharka Elorretako saroiaren gain aldera aterako gara.

16. Elorretako saroi. Gainez gain jarraituko dugu hemendik.

17. Agautz (973 m). Ataungo domoaren paretak ia bere osotasunean eta Aralar aldea bistaratu daitezke 973 m-ko gailur honetatik. Bertan bada inguruko mendiak eta hegaztiak azaltzen dituen panel bat ere. Ibilbidea jarraitzeko Agauzko harratea bilatuko dugu domoan barneratzeko.

18. Agauzko harratea. Aizkorrandi edo Intzartzu parean dugula ipar mendebalderantz jaisten da bidezidorra.

GUNE INTERESGARRIAK



LIZARRUSTI PARKETXEA

1887an eraiki zen mikeleteek Gipuzkoa eta Nafarroa arteko joan-etorria zain zezaten, eta horregatik Mikelete Etxe bezala ere ezagutzen da. Egun, puntu hau Aralar Parke Naturalerako sarrera nagusietako bat bihurtu denez, bertan kokatzen da Aralarako interpretazio zentroa, aterpetxe eta taberna funtzioa ere betez (egun, berritze-lanak direla eta itxita; bitartean informazio-bulegoa San Gregorio auzoko elkargunean).



LAREOKO URTEGIA

Lareoko urtegia Malkorburu, Sarastarri, Akaitz eta Alleko mendiek inguratutako parajea, 1989an eraiki zen Agauntza ibaiaren emari ekologikoa eta ataundarren ur hornidura bermatzeko, 20 ha-ko azalera eta 2,35 hm³-ko bolumena dituelarik.

19. **Aldatseko iturria.** Hemendik baso-pistara atereaz eskuinera egingo dugu.

20. **Ezkerrera.** Ezkerrera egiten du bideak pista alde batera utzi eta lur artean jaitsiz. Bide hau baso-pistek etenda dago, baina guk pistak zeharkatu eta bidea jarraituko dugu.

21. **Aldazbarrena.** Aterpearen atzetik doan pista hartuko dugu Bedamaburu inguratzeke, berehala berriro ezkerrera eginez. Baso landaketa artean jaitsiko gara hainbat pista igaroz.

22. **Ezkerrera.** Ezkerreko pista jarraituko dugu oraingoan ere.

23. **Ezkerrera.** Beste behin ezkerreko pista hartuko dugu.

24. **Ezkerrera.** Orain ere ezkerreko pista jarraitu. Pista honetan jarraituko dugu berau amaitu arte.

25. **Ezkerrera.** Pista hau amaitzean ezkerrera jarraituko dugu pista zementatura atera arte zuzen jarraituz.

26. **Eskuinera.** Eskuinera egin pista zementatuan barneratuz. Ezkerrera gora eginez Erremediora heltzen gara.

27. **Aietzio.** Baserri hauek igaro eta behera jarraituko dugu.

28. **Metal-iturria.** Ezkerrera 180° egiten dituen pista hartuko dugu. Hemen eskuinean basoan barneratuz kokatzen da Bedamako iturria edo metal-iturria.

29. **Bedamako-zelaia.** Bedamako zelaien albotik eskuinera hartu behar da, berehala eskuinetik jarraituz.

30. **Aurrera.** Aurrera jarraituko dugu alboko bideak utziz.

31. **Eskuinera.** Eskuineko bidean jarraituko dugu oraingoan.

32. **Ikarandieta.** Bertatik Elbarrena eta Jentilbaratza primeran ikus daitezke. Artadiko bide zabalak eroso jarraitzen behera.

33. **Urdarano.** Baserri honetan errepidea hartuko dugu, berau jarraituz behera bidean. Honela igaroko ditugu Urrestarazugarakoa eta Iraan baserriak.

34. **Agerre.** Agerretxiki eta Agerreaundi baserrien artean igaro eta behera doan bidea hartuko dugu.

35. **Arkaizpe.** Etxe honen ataritik behera metro gutxi batzuk jarraituz berehala errepidea utziko dugu eta eskuinera sartzen den bidezidorra jarraitu.

36. **Errepidea.** Irubide eta Indarretxe artean errepidera aterako gara ezkerrera eginez.

37. **Iztator.** Errepidea gurutzatu eta eskuinera eginez zubia igaroko dugu erreka ondotik plazara hurbilduz.

38. **Amaiera-puntua.** San Martingo plazan amaituko dugu ibilbidea. Bertan dago udaletxea, eta baita Toursko San Martinen eliza ere.

GUNE INTERESGARRIAK



UBEGIKO LEIZEA

Ur-salto ikusgarria duen leize handia. Bertan hainbat jeinu mitologiko bizi omen dira (zezengorriak kasu). Zulo honetan barneratzen dira Lareoko urak, arazketa prozesu naturala jasan ondoren Aiaiturrietan atera eta Ataun osora banatzeko.



SAROIAK

Artaldeak biltzeko eta gavez babesteko tokiak dira saroiak eta bertan izaten dira txabolak, artzainen bizi-toki, udaz mendi-larreetara igotzen direnerako. Historikoki ingurune hau izan da Ataungo artzantza gunen nagusienetako bat, eta beraz bidean honelako bat baino gehiago topatuko ditugu.